

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2007KO AZAROA

Euskal AEko industria %0,7an murriztu zen 2007ko azaroan


2007ko lehen hamaika hilabeteetako hazkunde metatua %3,1 izan da.

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2007ko azaroan, lan egutegiko termino homogeneotan %0,7an murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2006ko hil beraren aldean. Urteko lehen hamaika hilabeteetan %3,1eko hazkunde metatua izan da, 2006ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2007ko azaroan %2an murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin alderatuta.

Industri jardueraren balantzea urteko lehen hamaika hiletan urte arteko %3,1eko hazkundearekin ixten da; ekipoko (%6,9) eta bitarteko ondasunek (%4,0) jokaera azpimarragarria izan dute; berriz, energiako sektorean (%-2,9) eta kontsumoko ondasunenengan (%-2,5) tasa negatiboak izan dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabetea



(*) 2007ko urri-azaroko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreka eta industria-sektore handien sailkapenaren arabera, 2007ko azaroko indizearen bilakaerak 2006ko azaroaren aldean Energian izan zuen hazkundea (%4,6). Ekipoko ondasunek %-1,4ko jaitsiera izan dute; Bitarteko ondasunek %-0,3; eta Kontsumoko ondasunek %-4,2, batez ere Kontsumo iraunkorreko ondasunen

jaitzieragatik (%-8,6), ez-iraunkorrekoak askoz modu apalagoan (%-1,7) jaitsi baitziren.

2007ko azaroko hil arteko aldakuntzak negatiboak izan dira 2007ko urriaren aldean industri sektore handi guztientzat, Energiarentzat izan ezik, zeina %5,6 igo baita. Ekipoko ondasunak %3,8 jaitsi dira, Bitarteko ondasunak %1,6 eta Kontsumoko ondasunak %5,6 Kontsumo-ondasunen osagaien artean, kontsumo-ondasun iraunkorrek %-4,9ko hil arteko jaitziera izan dute eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrek %-5,9koa.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera Industri Produkzioaren Indizeak bilakaera positiboa izan du Gipuzkoan (%0,1); Bizkaian ez dago aldaketarik (%0,0) eta Araban %-3,6ko jaitziera izan da.

Hil arteko tasak, 2007ko azaroka urriaren aldean, negatiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban %5,0 jaitsi da, Gipuzkoan %1,6 eta Bizkaian %0,9.

Taula: 2007ko AZAROA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	Aza07/Aza06	At/At-1 (1)	Aza07/Urr07	Urr07/Ira07
Indize orokorra: Euskal AE	-0,7	3,1	-2,0	0,3
Araba	-3,6	1,7	-5,0	0,3
Bizkaia	0,0	2,7	-0,9	-0,5
Gipuzkoa	0,1	4,3	-1,6	1,1
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-4,2	-2,5	-5,6	2,9
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-8,6	-1,5	-4,9	2,3
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-1,7	-3,0	-5,9	3,2
Ekipo-ondasunak	-1,4	6,9	-3,8	0,5
Bitarteko ondasunak	-0,3	4,0	-1,6	0,9
Energia	4,6	-2,9	5,6	-5,9

(1) "T" urteko urtariletik azken hileraren arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko "T-1" aldi beraren aldean

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Telef.: +34 -945 75 00 Faxe: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp